

## GURE HISTORIA

1949. urtean Venancio, Pascual, eta Alday anaien arteko lagun talde bat elkartu zen futboleko aritzeko. San Isidro Txapelketan parte hartu zuten. Txapelketa horretako partaideak Sindikatua eta Gazteen Frontea izan ziren. Talde horiek liga erregionalean sartzeko prestatzen ari ziren. 1962/63 denboraldian, Gasteizko Hezkuntza eta Atsedenean jokatu zen enpresen 1. ligan jokatu zuten. Antolakuntza Iñaki Aranburu jauna, Sindikatuaren burua, animatu zuten gazte talde baten esku egon zen. Hau Pascual jaunarekin harremanetan jarri zen taldea martxan jartzeko. Baldintzak nahiko prekarioak ziren: ez zuten ez botarik, ez kuloterik, eta kamisetek ez zuten zenbakirik. Joan-etorriak eurek ordaintzen zituzten, baina oztopo guzti hauek gorabehera, denboraldia amaitzea lortu zuten.

1964ko urtarrilaren 24an SDA.C. Salvatierra sortu zen. Sortzaileen artean Azcarraga jauna, Ulate, Aurelio, Iñurrieta, Aranburu, Berrueta, Pascual,... aurkitzen ditugu. Lehen lehendakaria Aurerlio Gonzalez jauna izan zen, eta idazkaria Jesus Iñurrieta jauna. Enpresen ligan izena eman zuten, Mendizorrotza zelaian partida batzuk jokatu. Bi urtez gure taldeak Araiako zelaian jokatu zuen, gurea eraikitzen ari baitziren. Aguraingo futbol zelaia 1969an inauguratu zen. Aguraingo Kirol, Artistiko eta Kultura, Elkartek 600 bazkide inguru zituen garai hartan. Bazkide izateko orduan kuota hilean 5 pezetakoa zen, eta 2 pezetakoa emakumeentzat eta haurrentzat. Instalazioek taberna bat eta egoitza zuten. Lokal honek Parchisa, Damak, eta antzeko jokoak zituen, eta bertan dantzaldiak, dantzak, magia ikuskizunak eta beste hainbat kultur ikuskizun ere bazeuden.

1970ean eman zuen izena lehen aldiz gure Kirol Elkartek Gipuzkoako Futbol Federazioan Mondragon, Bergara, Errenteria, Roteta eta antzeko talde ospetsuekin lehiatzeko. Exposito, Narbaiza eta Larrea izan ziren talde horretako entrenatzaileak. Datu bitxi gisa, aipatu behar da federazio-fitxak egiteko gure klubeko zuzendari bat trenez joan behar izan zela Donostiara. 1986. urtean, Arabak bere federazio propioa sortu zuen, eta federazio horretara pasa zen gure Kirol Elkartea. Kirol arloan, gure gazteak kopako finala jokatzerira iritsi ziren C.D. Alaves eta San Viator taldeen aurka. Urte horretan bertan Haur Mailan talde bat sortu zen, aurrerago kadete izatera pasako zena. 1996. urtean, apirilaren 4-5-6-7-8 egunetan, Klubaren argazki eta oroitzapen guztiekin erakusketa bat egin zen postetxean. Ekimen horrek onarpen handia izan zuen. Urte horretan bertan gure herriko Udalak hareazko zelai bat eraiki zuen gure taldeen entrenamenduak egin ahal izateko.

1999/2000 denboraldian gure lehen taldeak Hirugarren Mailarako promozioa jokatu zuen. Regional Preferentean txapelaldunorde sailkatzea (Zaldiaranen atzetik) halako pribilegioa eman zion. Promozio hau Portugalete eta Oiartzunen aurka jokatu zuen. Hirugarren postuan geratu zen, eta hortaz,

ezin izan zuen goragoko mailara igo. 00/01 denboraldian Lehen Erregionaleko talde bat sortu zen Gazte Mailan amaitzen zuten jokalariek guztiei tokia emateko. Denboraldi honetan bertan Haur Mailako talde bat sortu zen gure taldean jokatzeko eskaera handiari aurre egiteko.

2003ko apirilean belar artifizialeko zelaia inauguratu zen, gure Kirol Elkartearen osatzen duten taldeen kopuruan hazteko aukera eman zuen eremua. Urte hartan bertan, Emakumezkoen Futbol Taldea sortu zen. Araban Ligarik ez dagoenez, talde horrek Gipuzkoako Federazioan eman behar izan zuen izena liga jokatzeko.

04/05 denboraldian talde nagusiak Hirugarren Mailara igotzea lortu zuen. Gure Klubeko talde batek kategoria nazionalean parte hartzen zuen lehen aldian izanik. Iban Martinez de Albeniz entrenatzailea izan zen igoera hori lortzeko arduraduna. Datu interesgarri gisa azpimarratzekoa da gure taldea 22 jardunalditan mantendu zela partidurik galdu gabe.

Talde aguraindarraren erreferenteetako batzuk Jesus Maria Baltasar "Suso", bere kapitaina, Ricardo Paternain aurrelaria (hamabost gol egin zituen eta bazekiena zer zen Hirugarren Mailan jokatzeko, Laudioko lerroetan) eta Ekaitz Olabe punta erdia, askorentzat, kategoriako jokalaririk onena, 17 urterekin Bigarren B Mailan Aurrerarekin debuta egin zuena eta ondoren Athleticekin fitxatu zuena, izan ziren. 150 jokalariek 7 taldetan banaturik zeuden gure klubean. Ute horretan Isidro Carmona erretiratu zen, gure kamiseta urte gehien jantzi duen jokalarietako bat izanik, 22 urte guztira.

06/07 denboraldian, gure lehen taldea Erregional Preferentera jaitsi zen berriro, Portugalete, Beasain, Cultural de Durango, Laudio, Eibar B, Baskonia eta beste hainbat talderekin batera. Urte horretan bertan, Gazte taldea Ohorezko Gazte kategoriara igo zen.

07/08 denboraldian zuzendaritza berria osatu zen. Rafael Errok eta Alfonso Aguayok ibilbide berri bati hasiera eman zioten, gure herrian futbola suspertzeko ilusioarekin. 2. kadete mailako taldeak goi mailara igotzea lortzen zuen. Futbol Eskola 5 eta 10 urte bitarteko 24 jokalarirekin hasi zen eta denboraldiaren amaieran 48 neska-mutilek osatzen zuten. Denboraldi horretan bertan sortu zen lehen aldiz gure klubaren web orria.

*PD.- Diego Andradak bildu zuen gure klubaren historia hau. Ziur asko, gure Kirol Elkartearen historia askoz ere zabalagoa da, baina oso zaila da urte hauetan guztietan gertatu den guztia kontatu ahal izatea. Askok lagundu duzue gure entitatea sortzen eta garatzen, eta jakina zuek guztiok badakizuela gure Klubaren historiaren parte zaretela.*